

zerbikas heziketa-munduarekin eta gizarte-ekintzaren arloarekin zerikusia duten pertsonen bultzatutako fundazioa da, eta Euskadiko Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa sustatzeko helburua dauka. Gizarte-ekintzaren arloko irabazi asmorik gabeko erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak dauka.

norengana zuzentzen gara?

- Hezkuntzako Zentroak.
- Irakasleei laguntzeko baliabideak.
- Hizkuntza ez-arautuko heziketa espazioak eta instituzioak.
- Gizarte-ekintzako, garapen komunitarioko, gazteen... GKEak.
- Toki mailako administrazio publikoak.

zer aurki daiteke zerbikasen?

- Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren inguruan, ezagutza sortzeko espazioa.
- Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioan interesa duten pertsona eta erakundeek laguntzeko baliabideak:
 - Prestakuntza
 - Aholkularitza teknikoa
 - Dokumentazio espezializatua
 - Esperientzia-bankua
 - Gida praktikoak
- Ekimenak bultzatu eta hedatzeko eragilea.

lana sarean

zerbikasek topaketa bilatzen du Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioarekin identifikatuta sentitzen diren erakunde publiko eta gizarte-erakundeekin. **zerbikas**ek aliantza estrategikoak ezarri ditu antzeko ekimenekin..



La Laguna,5 bajo
(Pza. de la Cantera)
48003 BILBAO
Tfno:618159269
www.zerbikas.es
info@zerbikas.es

Esan eta ahaztu egingo dut,
irakatsi eta gogoratu egingo dut,
tartean sartu eta ikasi egingo dut.

Benjamín Franklin




zerbikas

ikasketa eta zerbitzu solidarioa

_ **zerbikas** gizarte-ekintzako* irabazi asmorik gabeko zenbait erakunderen gogoeta bateratutik sortu da. Gogoeta, izan ere, ume eta gazteen **hiritartasun-heziketa** bultzatu beharrari buruzkoa izan da, beti ere, gizartea hobetzeko **konpromiso aktiboaren** bitartez.

* EDEX, Sartu, Drogarik gabe Bizi Fundazioa

Laguntza:



zer da ikasketa eta zerbitzu solidarioa ?

Heziketa-proposamena da, komunitateari eskainitako zerbitzuaren bitartez ikaskuntzak garatzen dituen. Proposamena esku-hartze proiektu zehatz batean gauzatzen da.

Ikasketa: heziketa-helburu esplizitua dauka, ezagutza, trebetasun, jarrera eta balioen lorpena lotutakoa.

Zerbitzu Solidarioa: protagonisten interesa komunitatearen aldeko zerbitzura bultzatzen du.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa: ikaskuntza eta herritartasunaren jardun aktiboa lotzen ditu.

* ikasketa eta zerbitzu solidarioen zenbait adibide

- Portugaleten, ikastetxe bateko gazteek balio eta trebetasun komunikatiboak garatzen dituzte eta eragin positiboa dute beraien komunitatean; izan ere, ospitaleratuta dauden eta egoitzetan dauden pertsonen laguntzen diete.
- Katalunian, ikasleek trebetasun sozialak garatzen dituzte eta Interneti buruzko ezagutzak finkatzen dituzte, pertsona nagusiei Sarean nabigatzen irakatsiz.
- Argentinan, eskola bateko neska-mutikoek idazketaren eta herritarren partaidetzaren garrantzia ikasten dute, alkateari gutunak idatziz eta herrian aldaketak proposatuz.

noretzat da erabilgarria

ikasketa eta zerbitzu solidarioa ?

Ikastetxeentzat: herritartasunerako heziketa ekintza kolektiboetan zehazten du. Ekintza horiek parte-hartzaileen gogoeta sustatzen dute, errealitatea eraldatzen dute eta komunitatearekiko harremana hobetzen dute.

Parte-hartzaileentzat: ikaskuntza esanguratsua ahalbidetzen du eta garapen pertsonal eta soziala sustatzen du zenbait alderdiri dagokienez, besteak beste, autoestimua, gizartearen aldeko jokabidea, konpromiso soziala eta hobekuntza akademikoa.

Komunitatearentzat: pertsonen bizi-baldintzak hobetzen ditu eta kideen pertenezia-sentimendua indartzen du.

